



DISPEPSIA FUNTZIONALARI BURUZKO GOMENDIOAK

Zer da dispepsia funtzionala?

Dispepsia funtzionala gaixotasun erabat onbera da; mina edo molestiak sortzen dira sabelaren goialdean, urdailaren aldean. Baliteke ondoeza jatean arintzea, baita tratamenduarekin ere.

Beharbada, gaez esnatuko zara gaixotasuna dela eta.

Miaketa endoskopikoan urdailean lesioak daudela baztertu bada, funtzionaltzat jotzen da.

Dispepsia funtzionala nahasmendu kroniko bat da, eta sintomak agertzen eta desagertzen dira urteetan zehar.

Zergatik sortzen da dispepsia funtzionala?

Ez dakigu zerk sortzen duen dispepsia funtzionala.

Zer zeinu edo sintoma eragiten ditu dispepsia funtzionalak?

Hauek dira gaixotasunaren sintoma ohikoenak: goragalea, abdomena handitzea, bihotzerrea, digestio astunak, korrokak eta berrahoratzeak.

Nola diagnostikatzen da dispepsia funtzionala?

Diagnostikoa klinikari erreparatuta egiten da. Batzuetan, irudien bidezko probak edo proba endoskopikoak egin behar izaten dira.

Zer gomendiori jarraitu behar diete dispepsia funtzionala duten pazienteek?

Badaude oso garrantzitsuak diren gomendio batzuk, dispepsia funtzionalaren tratamenduan oinarrikoak direnak. Gomendio horiek bete egin behar dira, nahiz eta tratamenduan medikamentuak hartu.

- Ez jan molestiak eragiten dizkizuten elikagaiak; besteak jan ditzakezu.
- Ez alkoholik edan, eta ez erre.
- Ez hartu aspirinarik, ezta antiinflamatoriorik ere, batez ere 60 urtetik gorakoa bazara edo aurretik urdaileko ultzerarik edo ultzerekin lotutako konplikaziorik izan baduzu. Oro har, mina baduzu, parasetamolarekin lotutako konposatuak har ditzakezu, urdailari eragiten ez diotelako.
- Kontraindikaziorik ez badago, hartu medikamentuak urdaila beteta duzunean.